

Udalekuetako hezitzaile hori,

Oso urte berezia izaten ari da. Oraindik ez gara normaltasunera itzuli, eta nabari ere nabaritu dugu guztiok. Duela gutxira arte udalekuak egiterik izango ote genuen ere ez dugu jakin. Ez dugu formazio ikastaro presentzialik antolatzeke aukerarik izan, baina animatu egin nahi zaituztegu:

- Euskarari eutsi. Udalekuetan euskaraz egin... eta eragin!
- Zure burua formatu!
- Materialak eskuratu, irakurri, gogoeta egin eta praktikara eraman: **ESPERIMENTATU!**

Zergatik da horren garrantzitsua udalekuetan eta aisialdian euskararen erabilera? Zergatik aurten bereziki? Duela gutxi mahai-inguru bat egin genuen horren inguruan Iñaki Eizmendi eta Eñaut Aiertzaguenarekin. Horri buruz irratian egindako elkarrizketa bat entzun ahal duzue hemen (gaztelaniaz, 10 min.):

<https://euskaraba.eus/es/ebete-oinherri-2/>

Udalekuak, alde horretatik, funtsezkoak dira. Euskararekiko jarrerak zerikusi handia du haurrak hizkuntza horretan dituen bizipenekin. Euskara zerekin lotzen dute? Eskolarekin ala aisialdiarekin/lagunekin/ondo pasatzearekin? Udalekuak, alde horretatik, bizipen funtsezko bat dira haur askorentzat. Aisialdiak sozializatzeko ahalmen handia du. Paula Kasaresek oso ondo azaltzen du bideo honetan:

<https://youtu.be/OfQbloza4lw>

Eta nola lortu udalekua, euskararen aldetik ere, esperientzia aberasgarria izatea? Arabako Foru Aldundiak GEU elkartearen, Arabako Euskara Zerbitzuen eta Ebete enpresaren aholkularitzarekin, oinarritzko gida bat argitaratu zuen orain dela urte batzuk: **HAU JOLASA BAINO GEHIAGO DA** (Hezitzaileentzako gida praktikoa: Euskararen sustapenerako tresnak). Hemen eskuratu ahal duzue:

[Hau Jolasa baino Gehiago da \(PDF, 5.7 MB\)](#)

Bertan oinarri-oinarritzko baliabide batzuk dituzue:

- Dekalogo bat: oinarri-oinarritzko jarraibide batzuk (8. orrialdean)
- Eguneroko errutinak nola erabili, euskararen erabilera indartzeko: hizkuntza-errutinak (19. orrialdean)
- Jolas batzuk, hizkuntza lantzeko ere erabili ahal direnak: hizkuntza-jolasak (27. orrialdean)
- Berariak euskara lantzeko eta euskara sustatzeko erabili ahal diren jarduerak: euskara ardatz (35. orrialdean)

Ez dizue denbora asko kenduko, eta baliabideak oso erabilgarriak egingo zaizkizue.

Edonola ere zuen jarrera da euskararen erabilera indartzeko duzuen tresnarik eta estrategiarik ahaltsuena: euskaraz egin, eta haur zein gazteekin dituzuen interakzioak kudeatu, haiek euskaraz egin dezaten. Haurrak edo gaztetxoak euren artean gaztelaniara makurtzen badira,

zer? Haiengana hurbildu eta haiekin interaktuatu (euskaraz, jakina). Iñaki Eizmendik **“hezitzaile berritsua”** deitu dio estrategia horri.

Sakondu nahi baduzue, material ugari dago. Eusko Jaurlaritzaren web-orrian, adibidez, 2 liburuxka interesgarri aurkitu ahal dituzue. Zehatzagoak dira eta nerabeekin egiteko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko lagungarriak izan daitezke. Honako hauek:

- [EUSLE dinamikak udalekuetan \(PDF, 705 KB\)](#)
- [Jarduerak eta hizkuntza-jolasak \(PDF, 504 KB\)](#)

Besterik ez gure aldetik, animo aurretik duzuen lanari aurre egiteko eta eutsi!